

ERANSKINA

"ESKOLAN BERTSOTAN 2025-26" PROGRAMA

1. Deialdiaren xedea.

1.1. Nafarroako B eta D ereduetako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat da programa, 2025-26 ikasturteko 2026ko urtariletik ekainera bitartean egiteko.

2. Programaren deskribapena eta ezaugarriak.

2.1. " Eskolan bertsotan" programaren helburua komunikazio-gaitasunak areagotzea da, batez ere ahozko adierazpena, bertsolaritzak berezkoa duen hizkuntzaren erabilera bat-batekoaren bidez. Bertso inprobisatuak norbere buruan konfiantza eta segurtasuna sustatzen ditu ikasleengan, eta komunikazioa hobetu dezaketela eta hitz-jarioa azkartu dezaketela ikusarazten die. Programak bat-batekotasunaren ezaugarriak lantzen ditu: teknika, erritmoa, metrika eta errima. Gainera, euskal literaturan bertsolaritzaren ahozko tradizioa jorratzen da.

2.2. Beraz, ikasleen komunikazio-gaitasunak eta motibazioa areagotu nahi dira, erabiliz bereziki hizkuntza-interakzioa eta ahozko ulermena eta adierazpena euskaraz, inprobisazioan oinarritutako jardueren bidez umorea lantzeko, eztabaidatzen ikasteko, sentimenduak adierazteko, hitzekin jolasteko... Azken batean, ahozko adierazpena modu ludikoan lantzea da helburua.

2.3. Programa honetan, 100 tailer zuzenean emanen dira, ikasle-talde bakoitzari 15 eskola-saio, bertsolaritzari lotutako euskal kultura ezagutarazteko eta bertsoen sormenezko inprobisazioa lantzeko, ikasitako melodiak praktikan jarritz. Bertsolariek emanen dituzte saioak.

3. Eskaera egiteko epea eta modua.

Deialdia web orri hauetan argitaratuko da:

www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es.

Ikastetxe bakoitzak nahi adina tailer eskatu ahal izango ditu. Taldeak ez dira 20 ikasle baino gehiagokoak izango, eta, ahal den neurrian, talde naturalak errespetatuko dira. Eskaera bat egin beharko da maila bakoitzeko.

Ikastetxeek web-inprimaki baten bidez egingen dute eskaera, eta inprimaki hori aipatutako web orrietan argitaratuko da 2025eko urrian. Hezkuntza Departamentua, erakunde esleipendunarekin lankidetzan, tailerrak esleitzeaz arduratuko da, deialdian ezartzen diren irizpideen arabera, eta tailerrak egingen direla bermatuko du, ikastetxe eskatzaile bakoitzeko maila batean gutxienez. Ikastetxe bakoitzeko tailerren kopurua jasotako eskaera guztien kopuruaren arabera izanen da.

Tailerrak ikastetxeei esleitu ondoren, bertsolaria, Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak gainbegiratuta, ikastetxe bakoitzeko irakasle arduradunarekin harremanetan jarriko da, jarduera bi aldeen artean antolatzeke. Eskola-eguneko saioen ordutegia ikastetxearen eta bertsolariaren artean adostuko da, txandak esleitu ondoren.

4. Hautaketa-batzordea eta esleipenerako baremoa.

4.1. Hezkuntza Departamentuak hautaketa-batzorde bat izendatuko du, kide hauek izango dituen:

Presidente: Euskara Ataleko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekideak:

Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua, edo hark eskuordetzen duena, eta Euskara Ataleko irakasle-aholkulari bat.

4.2. Hautaketa-irizpideak eta baremoa:

- Inskripzio-ordena hartuko da kontuan.
- Ikastetxe bakoitzeko tailerren kopurua jasotako eskaera guztien kopuruaren arabera izanen da.
- Programa honek eskaintzen dituen 100 tailerren baino eskaera gehiago jaso zergo:
 - o Ikastetxe bakoitzean gutxienez tailer bat esleitu de la bermatu de da, betiere aurreko deialdian parte hartu ez badute.
 - o Lehentasuna izanen dute ikastetxe publikoek (plazak % 20 itunpeko ikastetxeentzat gordeko da).

5. Esleipena ebatzea eta jakinaraztea.

5.1. Hautaketa Batzordeak tailerren behin-behineko esleipena bere web orrian (www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es) argitaratu de du. Une horretatik aurrera, egutegiko 7 eguneko epea egonen aurkako erreklamazioak aurkezteko.

5.2. Erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko esleipena aipatutako web orrietan argitaratu de da.

6. Irakasleen eginkizunak.

Arloko irakasleak taldearekin batera parte hartu beharko du jarduera horietan.

6.1. Parte hartzen duten ikastetxeek programaren balorazio idatzia eginen dute, eta Euskara Atalari helaraziko dizkiote ondorioak. Atal horrek enpresa esleipendunari helaraziko dizkio, azken memoria bat egin dezan, eta Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalean entregatuko du 2026ko ekainaren 30a baino lehen.

7. Besterik

Deialdi hau gauzatzeko, "Eskolan bertsotan 2025-2026" euskarazko hezkuntza-programa egiteko zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzen duen Hezkuntza eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiaren uztailaren 24ko 103E/2025 Ebazpenaren bidez onartutako kontratua esleitu behar da. Kontratu horren helburua komunikazio-gaitasunak areagotzea da, Nafarroako ikastetxeetako B eta D eredueta Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzendutako bertsolaritzaren berariazko modalitatearen bidez, 2025-2026 ikasturteko urtarriletik ekainera bitartean.